

Prensa Oharra

Donostian antolatuko da ICOE-OEE 2022 konferentzia, energia ozeanikoetako munduko ekitaldirik garrantzitsuen

“International Conference on Ocean Energy & Ocean Energy Europe 2022” (ICOE-OEE 2022) deritzon energia ozeanikoei buruzko munduko ekitaldirik garrantzitsuenak sektoreko ehunka profesional eta ikertzaile bilduko ditu Donostiako Kursaalean, urriaren 18tik 20ra bitartean. ICOE-OEE 2022 Euskadiko Energiaren Kluster Elkarteak) antolatu du Ocean Energy Europe (OEE) erakundearen lankidetzaz eta Energiaren Euskal Erakundea (EVE) babesle nagusi duela.

Energia ozeanikoak, trantsizio energetikorako alternatiba

Europako Batzordeak 2030erako 1.000 MW ekoizteko helburua ezarri du Itsas Energia Berriztagarrien Estrategian (itsas-eolikoaren 60.000 MWekin batera). Espainiaren kasuan, Itsas Energia Eolikoaren eta Itsasoko Energiaren Ibilbide Orriak 40-60 MWeko helburua ezarri du itsas-energiei dagokienez denbora-tarte berean. Kopuru horiek behin-betiko bultzada eman diezaioke dagoen hamarkadetan sektorearen hazkunde nabarmena erraztuko duten eskalako ekonomien sorkuntzari. Gainera, interes handiko aukera da Euskadirentzat, nazioarteko erreferentziatzko eskualde bihurtu den sektore honetan.

Euskadi, energia ozeanikoen nazioarteko erreferentzia

Euskadi olatu-energiaren garapenaren arloko lider globaletako bat da, bertako industria-sarearen eta intentsitate teknologikoaren arteko konbinazioagatik. Euskadik mundu osoan elektrizitate gehien ekoizti duen olatu-energia sortzeko instalazioa du Mutrikun, eta Armintzan, BiMEPen instalazioak daude, parekorik ez duen saiakuntza-gunea, itsaso zabalean kokatua eta sarera konektatua. Euskadik nazioarteko esperientzia duten hainbat enpresak osatutako balio-kate osoa du. Horietako bat da olatu-energiaren bihurtuaren teknologia propioa duen IDOM enpresa, Estatu Batuetako Energia Departamentuarentzat proiektu aitzindariak garatzen diharduena. Euskadik I+G zentroak ere baditu, Tecnalia eta AZTI kasu, eta bertako unibertsitateak, Mondragon Unibertsitatea eta UPV-EHU tarteko, sektorearen garapen teknologikoaren punta-puntan daude.

Gainera, sektoreak Eusko Jaurlaritzaren eta Energiaren Euskal Erakundearen bultzada irmoa du. Energiaren Euskal Erakundea mundu mailako zenbait berrikuntza-ekimen bereziren buru da egun; adibidez, EuropeWave programa, Europako Batzordeak

sektorearen garapen komertziala sustatzeko egin duen apustu nagusia, EVEk Eskoziarekin batera koordinatutakoa.

Donostia ICOE-OEE 2022 ekitaldiaren egoitzatzat aukeratu izanak argi eta garbi frogatzen du Euskadik sektore horretan duen garrantzia, bai industria eta teknologia-mailan, bai euskal administrazioak ematen dion babes eta bultzadagatik

ICOE-OEE 2022: mundu mailako ekitaldirik garrantzitsuen

Bi urtez behin, [ICOE-OEE 2022](#) energia ozeanikoei buruzko mundu mailako ekitaldi nagusia bihurtzen da. Energiaren Nazioarteko Agentziako energia ozeanikoen sailaren ([IEA-OES](#) ingelesezko siglen arabera) babespean, edizio hau [Euskadiko Energiaren Kluster Elkarteak \(EKE\)](#) antolatu du [Ocean Energy Europe \(OEE\)](#) erakundearen lankidetzaz. Topaketak energia ozeanikoan sektoreko ehunka eragile eta profesional bilduko ditu Donostiako Kursalean, urriaren 18, 19 eta 20an.

Konferentziak asmo handiko programa teknikoa izango du, eta programa hau osatzen duten 21 saioetan, enpresa nagusiak, I+G arloko eragileak eta etorkizun handiko energia-alternatiba honen garapena gidatzen ari diren erakunde publikoak ordezkatzen dituzten mundu osoko 150 hizlarik parte hartuko dute.

Urriaren 18an, asteartea, irekiera-ekitaldian, Eneko Goia Donostiako alkateak ongiatorria emango die bertaratutakoei, eta ondoren, sektoreko punta-puntako proiektuak aurkezteko osoko bilkura egingo da. Asteazkeneko saioen hasieran, Iñigo Urkullu lehendakariak hitzaldia emango du, eta arratsaldean, sektorearen funtsezko ordezkariek elkartuko dituen mahai-ingurua egingo da, Iñigo Ansola EVEko zuzendari nagusia tarteko.

Konferentzia teknikoaren osagarri, 50 erakusketari baino gehiago bilduko dira erakusketa-gunean, 'Wave Energy Basque Country' markapean bildutako euskal enpresen parte-hartze zabala nabarmenduz. Bertan izango dira, besteak beste, EVE; BiMEP; IDOM, AEROBLADE, DITREL eta GALEA enpresak eta TECNALIA eta AZTI zentro teknologikoak. Gainera, Kanada, Eskozia eta Galesko nazioarteko ordezkariek ere bertaratuko dira, haien herrialdeetako erakunde ugari bilduz.

Erakusketa-guneak harreman eta *networking* profesionalerako aukerak eskainiko ditu, eta horrekin batera, SPRI, European Enterprise Network delakoaren Euskadiko ordezkaria den aldetik, berariazko B2B (*business-to-business*) ekitaldia antolatuko du.

Ekitaldiari eutsi dioten 17 babesleek topaketaren antolaketa erraztu eta horretan zein maila teknikoan lortutako kalitate-maila handia ahalbidetu dute, beraien laguntza eta parte-hartzeari esker. Nabarmentzekoak dira Energiaren Euskal Erakundea (EVE) platinozko babesletzat, BiMEP zilarrezko babesletzat, IDOM eta DITREL brontzezko babesletzat, SPRI babesle teknologikotzat eta EUROESKUALDEA eta ICEX laguntzailatzat. Nazioarteko parte-hartzeari dagokionez, aipatzekoak dira Kanada eta Gales urrezko babesletzat, Team Scotland, zilarrezko babesletzat, eta DP

Energy, asteartean, hilak 18, Kursaalako foyerrean egingo den Welcome Reception ekitaldiaren babesletzat.

Konferentzia teknikoa baino gehiago

Ekitaldiarekin batera, hainbat jarduera osagarri antolatuko dira, nazioarteko ordezkariak egonaldia ahalik eta gehien aprobetxatu eta Euskadi bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dezaten: gala-afaria asteazkenean, urriak 18, Maria Cristina hotelean; bisita teknikoak ostiralean, urriak 21, BiMEPera eta olatu-energia sortzeko Mutrikuko instalazioetara; Pasaiaiko Albaola eta MATER museoa zein Zumaiako flyscha ezagutzeko bisitak eta pintxo-ibilbidea hirian zehar. Era berean, bertaratutakoek Donostiako hiru hondartzetan zehar antolatuko den bost kilometroko lasterketa batean parte hartu eta Zurriola hondartzan surf eskolak hartzeko aukera izango dute.

ICOE-OEE 2022 topaketari esker, Euskadi itsas-energia berriztagarrien garapenaren munduko erdigunean kokatuko da astebetetz. Aukera paregabea izango da, euskal sektorea trantsizio energetikoari funtsezko ekarpena egin diezaiokeen etorkizun handiko arlo honetan posizionatzeko.

ICOE-OEEri buruz

[Energiaren Kluster Elkarteak](#) eta [Ocean Energy Europe](#) erakundeak bat egin dute, Energiaren Nazioarteko Agentziaren Ocean Energy Systems (IEA-OES) delakoa aldean dutela, baterako ekitaldi hau antolatzeko, eta honen barruan, Energia Ozeanikoari buruzko Nazioarteko Konferentzia (ICOE) eta Ocean Energy Europe (OEE) urteko erakusketa egingo dira. Parekorik ez duen topaketa honek energia ozeanikoaren arloko mundu osoko profesionalak eta erabaki-hartzeen arduradunak bilduko ditu Donostian, 2022ko urriaren 18tik 20ra bitartean.

Kontaktua

Done Bikendi 8, II. Albia Eraikina
4. sol. B. esk. bulegoa. 48001 Bilbo
info@icoeoe2022donostia.org